

Harrak har

BARATZEAN lagun kuadrilla ikaragarria dugu. Zorri eta kotxinila jenez egiten duen garbiketa asarrea dela eta, amona mantangorria hizpide izan dugu azkenaldi honetan. Ez da bakarria, ordea, ezta bakana ere. Antzeko lana egiten duen lagun mordoia dugu.

Ipurtargiaren kumearen dieta baratzezainaren gustukoa da: bareen eta barraskiloen kumeak jenez hazten da. Kume kumejaleak. Ipurtargitxoak listu berezia sortzen du; harekin baretxoak eta barraskilotxoak sorgortzen eta desegiten ditu. Ondoren, koitadutxoak lasai asko xurgatuko ditu, xurrupe. Karboak ere jaten ditu bare eta barraskilo ttikiak. Berehalaz ezagutuko duzu intsektu hori: gainaldea distiratsua, metalezkoa balitz bezalakoa du. Handia da, eta proportzioan jan behar, ttiki horiez gain har, beldar, krisalida, pupa, ninfa... asko behar.

Zimitza da beste intsektujale aseegin bat: har, zorri, akaro... Josu Larrañagak bere *Natura eta Euskara, paisaiaren bi alderdi* blogean izen pila jaso zuen, eta zimitza izenaren etimologiaz dio J.A. Mogeleg, 1802. urte inguruan idatzitako *Peru Abar-ka* eleberri txukunean, etimologia



HANS HILLEWAERT-CC BY SA

Ipurtargiaren kumea, barraskilotxoak jaten.

bitxi hau eman zuela: “Tximitza edo imitxia esaten da tximurtxi, edo imurtxi egiten dabelako”.

Satitsuak ere asko behar du bizimoduari eusteko. Bere pisua adina jaten nahikoa lan badu: intsektu, barraskilo, bare... Asko dagoen tokietan bizi behar, bestela jai.

Trikua ere bereziki zaindu beharko genuke baratze inguruan. Bere gautxori ibilaldietan batez ere barraskilotxo, bare, ipurtsarde, har eta intsektuen buxkan arituko da, usaimen aparta baliatuz.

Satitsuak triku eta zimitzak ipurtargi, baratzeko laguntzaile onenak

hegaztiak dira: irriu, pirripio, txinbo, urretxindor, zata, argo-oilar, amilotx, saguzar, zozo, birigarro, artzandobi, txantxangorri, mika, eskinoso... Azken horien familia batek, adibidez, udaberri-uda sasoi batean, bestela intsektu bihurtuko lirartekeen milioi erdi bat har jaten du. Harrak habietako mokoetara.

Armiarmak ere lagun dira. Sarea egiten dutenak, eta egiten ez dutenak ere. Sarean, hegan doan eltxo, zorri... Denetik biltzen da. Saregabeak zortzian kan korrika segitu eta gainera salto eginda harrapatuko ditu intsektuak. ■

Zuritzen

LEHENGO ASTEAN egindakoa da argazkia. *Platanus x hispanica*, platanoa da; zurinak jotako platanoa. Oidioa ere deitzen zaio zurinari. Udaberriko gaitza da batez ere. Gaitza indarrean ikusteak oraindik udaberri giroa dugula adierazten du. Onddo batek sortzen du; hezetan apur bat behar du, baina batez ere beroa eta lehorra eta euria elkarri txanda kenduz ari direnean hedatzen da. Hosto gainean, axalean zabaltzen den lizun zuria da. Non edo han hau ikusiz gero, baratzeko alarma jotzen ari zaizu: han kuiak, kuiatxoak eta luzokerrak zaindu, zurin-berak dira. Sufrearekin, propolioarekin, esnekiekin edota bikarbonatoarekin tratatu. ■



JAKOBA ERREKONDO